

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

2016ko landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietakoaren gaineko zerga eta zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa kobratzea

Jakinarazten dut urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean kobratzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, 2016ko ordainarazpen hauek:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa.

1. Ordaintzeko epea

Borondatezko epea: 2016ko urriaren 1etik azaroaren 15era.

Betearazte aldia: 2016ko azaroaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaratuak –premiamentu murriztukoak eta premiamentu arruntekoak– ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko lekua eta modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak

Ordainketa helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan baino ezin izango dute ordaindu, borondatezko epean.

3. Gomendioak

Banku helbideratzeetako altak eta bajak, eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Arratzua-Ubarrundiako Udalarari jakinarazi behar zaizkio.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dura, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE